



## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2008-05-10

VI. URTEA 1.430. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JONAN FERNANDEZ BAKETIK ZENTROKO ZUZENDARIA

## «Parte-hartzeari buruzko sarea eduki nahi dugu Gipuzkoa osoan»

**TOLOSA** Gizarte parte-hartzeari buruzko ikastaroa izango da Kultur Etxean, hilaren 13an, 14an eta 15ean

**HELBURUA** Erakunde guztietako politikan gizarte parte-hartzea sustatu nahi dute; Baketik-ek antolatu du 4



N.URBIZU

HEKTOR ESPIN-ANTTON IZAGIRRE HAUTETSI INDEPENDENTISTAK

«Politikari on batek konpromisoa, duintasuna eta umiltasuna behar du»

**TOLOSA** Irakurleek bidalitako galderak erantzun zituzten HITZAren egoitzan 2-3

## Sormen eta gorputz tailerrak eta haur txokoa antolatu dituzte uda honetarako

**LEITZA** 'Udan ez gelditu etxean' lelopean 5-12 urte eta 3-7 urteko gazteei zuzenduta dago ekimena, hurrenez hurren; izena eman nahi duenak 012 telefono zenbakira dei dezake hilaren 25a baino lehen 7

**Basurde kirol elkartekoak «gustura» Berastegiko ibilaldiarekin 6**

**III. Bertso Paper Lehiaketan parte hartzeko epea zabaldu dute Alegian 5**

**HITZA Pilota Lehiaketako senior mailako lehen partidak, gaur 5**

Indianoene 1 20013 Donostia  
Telf: 943 272 587 e-posta: zurriola@ikastola.net  
www.barandiaranlizeoa.com



### ZURRIOLA IKASTOLA

#### BATXILERGOA (eleanitza aukerarekin)

Zientziak eta Teknologia  
Giza eta Gizarte Zientziak  
Arteak



**E Elkarrizketa digitala** • info**ANTTON IZAGIRRE ETA HEKTOR ESPIN** Alkato ohia eta hautetsi independentista

**Tolosa** » Herritarrek interes handia erakutsi zuten herenegun eta galdera ugari bidali zizkieten HITZAren webgunera Izagirre eta Hespín tolosarrei, elkarrizketa digitalean.

**ERREDAKZIOA**

Antton Izagirre Tolosako alkate ohia eta Hektor Espin hautetsi independentista Hitzaren egoitzan izan ziren herenegun iluntzean, zuek, irakurleok, egin zenizkien galderak erantzunez. «Gustura» aritu ziren, nahiz eta denbora arazo batzuk zirela-eta galdera batzuk erantzun gabe geratu ziren.

**Voith-Gorostidinetxebizitza tasatu bat tokatu zait eta dudatan nago erosteko ala ez. Zertan da zuek jarritako salaketa? Atzertuko al dira lanak? Eskerrikasko (Koxme)**

Kaixo Koxme. Gure salaketa tramitera onartu du Auzitegi Nagusiak. Ez dago gure esku auziaren epeak zehaztea. Hala ere, guretzat garrantzitsuen Tolosako Udalak gure egindako interpelazioari erantzutea da, hau da, esan dezatela zertan gauden oker edota zertan gezurretan. Guk garbi daukagu Voith-Gorostidi operazioa kaltegarria dela Tolosarentzat eta gainera ilegal. Ez du balio ezkutatzea. Gure asmoa ez da obrak atzeratzea, baizik dentsitatea gutxitzeko oraindik konprometitu gabe dauden etxebizitza guztiak (libreak) eraiki ez daitezkeen lortzea, tolosarron bizi baldintza duinak bermatzearen.

**Zein harreman duzue Tolosako Udaleko beste zinegotzi eta alkatearekin? Informaziorik ematen dizute? (Miren)**

Kaixo Miren. Urtarrilean azaldu genuen bezala, zinegotzi karguak lapurtu arren eta gure parte-hartzea bermatzeko inolako erraztasunik eman ez duten arren, guudalaxean egongo ginela. Azken hila-betetan batzordetan parte hartzen saiatu gara baina gaur da eguna gure presentzia eta interbentzioak aktatan jaso ere egiten ez direna. Hau da, udaletxeko aktak falsea-

# «Politikari onak konpromisoa eta duintasuna behar ditu»



N. URBIZU

tu dira gure parte-hartzea ezkutatzeke. Hortik atera kontuak!

**Kaixo Antton: Ze desberdintasun ikusten dituzu Tolosan zure agintaldiarekin konparatuz? (Omar Rodriguez)**

Kaixo Omar: Ez naiz, ni agian aproposena desberdintasunak nabarmentzen hasteko. Herritarren talaia aproposagoa izaten da antzeko begiradak botatzeko. Nik desberdintasun handiak ikusten ditut, baretik Udala ondo ezagu-

tu dudalako, talante eta izakera desberdina dugulako, orain EAJ-ren itzalak aurrez jotzen duelako eta nire garaian gestioa oztopatzen saiatu zirelako. Dena den gestioa soldatarekin neurtu nahi baldin bada, oraingoarena askoz hobea da.

**Azken lau urteren zer balorazio egiten duzue? Ze gauza onak eta ze txarrak egin dira? (Haritz)**

Gauzak ondo edo gaizki, tolosarron laurdenaren parte-hartzerik

gabe egin dira. Eta hori oso larria da, hartu diren erabaki garrantzitsu askoren zilegitasuna kolokan jartzen duelako. Gure ustez, Tolosaren irudia asko landu da eta batzutan ondo. Tolosa ezagunagoa da orain. Hala ere, irudikeria horren atzean benetako politikak, ekonomia arloan, etxebizitza arloan, behar sozialen arloan... interes ekonomiko jakin batzuen mesedetan egin da, ez tolosarron gehien-goaren mesedetan.

**Zer iruditzen zaizue Udalaren 2015 proiektu hori? Beharrezkoa al da? Benetan kontutan hartuko al dituzte biztanleen beharrak? (Lorea)**

Etorbizuneko prospekzioak egin behar dira. Baina kasu honetan irudikeria eta itxura gehiago dago benetako lan iraukerak eta sakona baino. Herritarren parte-hartzea eslogan hutsa bihurtu nahi dute. Erabaki nagusiak bulegoetan hartuko dira, baina noren bulegotan da egin behar genuen galdera.

**Zertan da Voith-Gorostidi auzoko salaketa? Lanak atzeratu edo gelditzeko aukerak handiak al dira? (Mikel)**

Aurrera doa salaketa. Epaileen esku dago auzia. Guk tolosar guztion eskubideak defendatzen jarraituko dugu amaieraraino eta lanak geratzea aukera bat da Udalak behar adinako erantzunak ematen ez baditu. Gure nahia eskandalu honen erantzukizun politikoak noren bizkar erortzen diren argitzea da.

**Ez naiz zuen herritarra, eskualdekoa baizik. Baina errespetu guztiz ez al zaizue iruditzen Jokin Bildarratzek 'Euro Tolosa Hiriri' moduko bat sortu nahi duela? Honi aurre egiteko herri presioa ez al litzateke indartu behar? (Iñigo)**

Zu ere Bildarratzen dizdirak itsutua ote? Jakin behar duzu alkateak antolatut duen irudi kanpaina handi honen atzean ez dagoela benetan ezer handirik eta eguzkia bihar ere toki beretik sartuko dela Tolosan ere. Bere agintea aldi baterako da.

**Nola ikusi duzue Tolosa azken urteetan? Hobera egin al du? izan ere, badirudi, oro har, jendea gustura dagoela. (Joxe Mari)**

Kaixo Joxe Mari. Jendea gustora badago bejondeiela. Gu ez gaude gustura egoera honetan eta orokorrean ez dugu uste gustura egoteko arrazoak handirik dagoenik. Gure ustez Tolosak egiturazko arazo

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA** jarri eta  
**Gipuzkoako beste 4 Hitzetan**  
**DOAN** agertuko da

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

handiak ditu eta azken urtetan ez dira pausoak eman horiei erantzuteko. Herria gero eta politagoa dugu baina sakoneko arazoak erantzuna bilatu gabe. Ekonomia arloan atzerakada nabarmena da, enpresen itxiera adibide, gazteak herritik kanpora lanera. Zerbitzu publikoen pribatizazioa. Udaltzaingoaren militarizazioa. Etxebizitza pila eraiki baina noizentzat? Zenbat jaitsi dira prezioak? Hau da beste errealtatea. Gustura egotea edo ez egotea erabaki pertsonala da eta errespetagarria guztiz.

**Epa, arratsaldeon pareja! Bata irakaslea, eta bestea arkitektoa zarete. Nolatan sartu zineten politikaren munduan? (Mattin)**

Gauza bat garbi daukagu, ez ginela politikan sartu aberasteko. Horretarako beste aukera politiko bat egin behar genuen... Benetan politikagintzan sinesten dugu eta egun duen irudi ezkorretik haratago politikagintza militantzia eta zerbitzu moduan hartzen dugu eta ikuspegi hau ez genuke aldatu nahi. Politikagintzaren duintasunean sinestu nahi dugu egun begi aurrean dugun eredu beste bat bada ere.

**Zer da Udal ordezkari batekin noiz ahaztu ezin duena? (Miren)**

Hautatu dutenen ordezkari gisa ari dela eta ez derrigorrez alderdi baten mesedetan.

**Kaixo, arratsaldeon, eta mila esker, herri honengatik egiten ari zaretan lan guztiagatik. Nire galdera ondorengoa da: Zein da egun, Tolosak duen gabezia handiena, hau da, zer falta zaio? (Maite)**

Kaixo Maite. Galdera potoloa egin duzu eta guztion artean, zu bame, erantzun beharrekoa. Gure ustez, lehen aipatu ditugun gabeziak ditu: ekonomia eredu iraunkorra eta orekatua, hau da hiru sektoreak modu orekatuan garatzeko baliabideak; nekazaritza eremu biziak, industria dibersifikatuak eta zerbitzu gune gisa erreferentzialtasuna. Dena den, askatasun gabezia handia du Tolosak ere, Euskal Herriak bezalaxe.

**Zein egoeratan zaudete EAE-ANVko zinegotziak Tolosako udaletxean? (Maite)**

Kaixo Maite. Lehen erantzun dugun bezala, erabat baztertuak Udaleko egungo arduradunen aldetik: informazioa ukatzen digute, ez dugu inolako baliabiderik (bulegoa, lan tresnak, diru laguntza,...) ez zaigu hitzordurik luzatzen,... Ikusezinak egin nahi gaituzte baina herrian oso presente gaude.

**Noizbait politika munduan sartzeak penatu egin dizue? Damutu al zaizue? (Iñaki)**

Kaixo Iñaki. Guretzat politika ideia baten alde lan egitea da. Beste batek auzo elkartean egingo du, beste batek kultur arloan, besteak edonon... Abestiak dioen bezala... Herria maitatzeko bide asko dago...

**Nolako iruditzen zaizue Hitza-**

**ren lana? Eta Euskal Herrian dagoen prentsa nola baloratzen dezue? Izan ere, lehengo astean 'Diario Vasco' irakurriena dela eta irakurle kopurua dezente igo dela argitaratu dute... (Leire)**

Harro gaude Udaletxean ardurako politikakoak izan genituenean Hitza zaren sorreran eta garapenean izan genuen parte hartze aktiboaz. Orduan haurtxo bat zena gaur koxkortu arikusten dugu eta etorkizun oparoa opa diogu. Prentsa orokorrean interes ekonomiko oso jakinen morrontzan aritzen da eta ez derrigor interes politiko hutsten mesedetan. Tolosan adibide oso garbia daukagu. Gure ustez Hitza bezelako proiektu anitzak eta libreak arnas berri bat ekarri diote irakurleari.

**Zuen alderdiko alkate bat, alkate izateagatik espetxeratu izan da. Zer diozue? (Igor)**

Lehenik eta behin, kartzelan ere bere herriko alkate izaten jarraitzen duela, herritarrek aukeratu zutelako. Oso harreman estua izan dugu berarekin eta ezagutzen dugu bere maila pertsonala eta humanoa. Saminez baina harrotasunez doakio hemendik gure besarkadatik beroena. EAJ eta PSOE dira Ino kartzelan egotearen erantzuleak, beraiek seinalatu dute eta Garzonek agindua bete du.

**Alkateari egindako elkarrizketan, zenbat kobratzen zuen galdetu zitzaion eta ez zidan erantzun. Zuek ba al dakizue zenbat kobratzen duen? (Mikel)**

Kaixo Mikel. Azken goioaren berri ez dugu baina gure datuen arabera ia 70.000 euro inguru (11 milioi terdi pezeta) gordinak izako urtean. Horri dietak, batzordetako lehendakaritzak, eta beste zenbait extra gehitu behar zaizkio.

**Egungo Udala, gure herria irudiaz asko kezkatzen dela iruditzen zaizue. Zein da zuen iritzia?**

Kaixo. Lehen ere aipatu dugu hori dela gure ustez egungo arduradunen obsesioa. Horren azpian zerbait balego behintzat... Guk askotan «Gabonetako argien» teoria erabiltzen dugu, hau da, dirudinez gabonetan argiak piztean gehiago saltzen da, beraz norbaiti bururatu zaio Tolosan urte osoan argiak piztuta edukitzea. Baina horrek ez du etorkizuna bermatzen.

**Egoera politikoa zaila dela diozue. Ikusten al duzue irtenbiderik? (Tolosar bat)**

Etorkizuna badu Euskal Herriak. Nahiz eta une honetan bidea ikusteko zailtasunak izan, argitasuna elkarrizketa eta negoziazioaren bidetik etorriko da. Hor dugu guk mahaian gainean jarritako konponente politikorako proposamena: Lau lurraldetako autonomia estatutua eta erabakitze eskubidea lurralde bakoitzari aitortua. Dena den irtenbidea guztion parte-hartze eta konpromisotik etorriko da.

**Zer iritzi duzue Arrasaten gertatutakoaz? Tolosan gauza bera gertatuko balitz bertako PSOEko**



N. URBIZU

**zinegotzi batekin zein izango litzateke zuen jarrera? (Gorka)**

Arrasaten gertaturikoa larria, mingarria eta barrenak astintzeko moduko giza eskubideen urraketa izan da. Gure jarrera, eskubide urraketa guztien aurkakoa da, izan hilketak, tortura, errugabeen atxilotaketa edo ilegalizazioa eta buruzagi politikoa espetxeratzearen aurkakoa. Lan egiten dugu eta jarraituko dugu hauek edo antzeko eskubide urraketak ez alde batekoa, ez bestekoak eman ez daitezkeen, hemen eta Arrasaten.

**Mozio etikoak gora eta behera gabilta azkenaldian. Zer iritzi duzue? Milesker. (Haritz)**

Mozio hauek ez dira etikoak, mozio politikoa dira eta helburu politikoa garbia dute: ezker abertzalea kriminalizatzea eta herriak emanadako ardurako politikoa lapurtzea. Etikoak izateko koherentzia falta zaie. EAJ eta PSOEek GAL, tortura, presoan sakabanaketa eta bestelako eskubide urraketak babestu dituzte eta ez dira inor etikako lekuzko emateko.

**Zer behar du politikari on batek?**

Konpromisoa, duintasuna eta umiltasuna, herriaren interesak interes pribatuaren aurretik jartzea eta politikak ez erabiltzea bestela lortuko ez litzatekeen helburu pertsonalak lortzeko. Hori badu, talde on bat bakarrak falta zaio.

**Nori egingo zeniokete mozio etikoak? Jon (Berastegi)**

Kaixo Jon. Mozio etikoa lehenik eta behin politikari bakoitzak bere buruari egin behar dio eta ikuspegi etiko horretatik egin ondoren politika. Politikak oinarritzko balore etikoak berarekin beharko litzuzke. Gu ez gineteke joango Villabonako udaletxera hango alkateari etikako lekzioak ematera atzo [osteguna] Bildarretzek egin zuen bezala.

**Euskal Herri independente batean, guztia erabat gure kabuz kudeatzen hasiko garenean, zein izango dira aldatu beharreko lehen bost gauzak? eskarrikasko ta animo!!**

Bost eta ez derrigor orden hone-

tan: 1- Ondasunen banaketa jurtuagoa. 2- Erabakitze prozesu parte hartzaileagoa 3- Administrazioa herritar guztien oinarritzko eskubideen berma bilakatzea. 4- Gizon emakumeen berdintasunaren bermea 5- Etorkizuneko belaunaldien natur baliabideak ez xahutzeko neurriak hartzea.

**Voith-Gorostidikoa horrela bada, zein izan daiteke gazteentzat irtenbidea gurasoen etxetik joateko? Milesker bikote! Leire**

Ezker abertzaleak etxebizitza politika zehatza dauka. Luze joko luke hemen azaltzeak, baina alokairuko etxebizitza parke publikoaren aldeko apustua egin behar dela deritzogu. Hori Tolosan Las Korain Goikoan (San Esteban auzoan) aplikatu beharko litzateke, hortsutuko baita datozen urtetako etxebizitza parke handiena. Tamalez, ez dugu inolako esperantzarik egungo Udala agintarien politika neoliberalarengan.

**Kaixo bikote. Azken aldiko gertaerak ikusita PSOE eta batez ere EAJ jauzi kualitatibotik kualitatibora dabilela ikusten dugu. Villabon gertatua horren adibide.**

**Ezker abertzaleak berriz ez du horrelakorik egiten, noraezean bezala dabilela dirudi, eta nire ustez ez da oraingo sentsazio bat. Jauzi kualitatiboen aurrean betiko erantzuna. Ez al zaizue iruditzen oker jokatzeko ari dela ezker abertzalea? (Alaitz)**

Errespetagarria da zure iritzia baina ezker abertzaleak egoera zailetan ere buru hotzez eta zentzuz jokatzeko jakin behar du, esku artean dugun egiteko proiektua luzea da eta jakin behar dugu erasoak erantzuten, probokaziotan erori gabe eta gure proiektu politikoa leheneztiz. Hala ere, ezker abertzalea zu bezalako herritarrez osatua dago eta guztiok osatzen dugu. Ateak irekita daukazu.

**Orain Tolosako Udala zuen eskuetan egongo balitz zer da aldaketu zenuketen lehen gauza? (seguru gauza asko daudela baina...)**

**Animo eta segi aurrera! (Eduarne)** Ikuspegi politikoa guztien parte-hartzea lehen arau demokratikoa da eta hori ezarri beharko litzateke lehenbailehen. Gero gerokoak.

**Ze iritzi daukazue tolosako udala AHTaren inguruan egiten ari den lanetaz? Zuek ze egiteko prest zaudete? (Josu)**

Tolosako Udala PNVren interesak babesten ari da AHTren auzian eta ez herritarren interesak. Gure ustez informazio gabezia larria dago eta eztabaida ukatzen zaio herritarri. Horrelako proiektu txikitzaile eta diru xahutzailerak geratu behar dira eta azpiegituren inguruko eztabaida oinarritik abiatu.

**Zuen lanaz aparte, ezker abertzalearen ordezkari lanak militantzia egitea nola eramaten da? denbora asko eskatzen du ezta? eutsi horri (Mikel)**

Estu estu. Orainxe bertan, arratsaldeko zortziretan, elkarretarazte deia dago Trianguloan. Hori dela eta, hemen utzi behar dugu gaurko saioa. Eskerrak Hartzari eta eskerrak galderak luzatu dituzuen guztiei. Oso gustura aritu gara. Hurrengora arte.

## E Elkarrizketa

JONAN FERNANDEZ › Baketik zentroko zuzendaria

## L Laburrak

## «Gipuzkoa osoan parte-hartzeari buruzko sarea eduki nahi dugu»

**Gizartea** › Datorren asteartean, asteazkenean eta ostegunean gizarte parte-hartzeari buruzko ikastaroa emango dute Tolosako Kultur Etxean.

## INIGO TERRADILLOS

Gipuzkoako Foru Aldundiak «politika publikoan gizarte parte-hartzea sustatzeko helburuz» ikastaro programa berria jarri du martxan. Ekimen honek Eusko Jaurilaritzaren laguntza du, eta Baketik arduratu da bere antolaketaz. Gipuzkoako 11 eskualdeetan izango dira ikastaroak, eta Tolosaldekoak datorren asteartean, hilaren 13an, asteazkenean, hilaren 14an eta ostegunean, hilaren 15ean izango dira, 19:00etatik 21:00etara Tolosako Kultur Etxean. Jonan Fernandez (Tolosa, 1962) Baketik zentroaren zuzendariak azaldu ditu *Ikasi parte hartzen* gizarte parte-hartzearen inguruko formazio programaren nondik norakoak.

## Nondik dator ikastaro hauek eskaintzearen ideia?

Abiapuntu bezala Gipuzkoako Foru Aldundiaren nahi bat dago. Gizarte parte-hartzearen inguruan kanpaina sendo bat nahi dute egin, etorkizunean gizarte parte-hartzeak indar handia izan dezan erakundeetako, udaletxeetako, Foru Aldundiko... azken batean erakunde guztietako politikan. Horretarako pentsatu zuten komenigarria izango zela formazio programa bat egitea, lehen pauso bezala. Guri, Baketik-ekoei eskatu ziguten ea programa honen arduradun nahi genuen izan, eta horrela jarri da martxan.

## Zein da formakuntza honen oinarria?

Hazi nahi duten pertsonentzat da programa honen leloa. Gizarte parte-hartzearen inguruan hasi daiteke ikuspuntu demokratiko batetik, sozial batetik, baina baita ere pertsona bezala; izan ere, parte hartzen pertsonak haziegiten dira,

ikasi egiten dugu, esperientzia bat izaten dugu, besteekin batera gauzak antolatzen eztabaidatzen, eraikitzen... eta horrek laguntzen du giza ikuspuntu batetik gauzak hobetzen. Hori garrantzitsua da.

## Gipuzkoa osoan emango duzue formazioa.

Gipuzkoa banatuta dagoen 11 eskualdeetan emango da ikastaroa. Donostialdean eta Goierriin hasi gara dagoeneko, eta balorazioa oso ona izan da. Bai parte-hartzeari dagokionez, bai eta ikasleek egin duten balorazioari dagokionez, oso gustura geratu dira, eta gu ere bai. Tolosan eta beste eskualdeetan ere horrelako erantzuna izatea espero dugu.

## Ikastaroa nola egongo da banatuta?

Lehenengo egunean gizarte parte-hartzearen inguruan dauden teoriari planteatzen dira; bigarren egunean gizarte parte-hartzearen mapa azaltzen da, hau da, zer gauzak egiten ari diren Euskal Herrian eta munduan arlo honetan; hirugarren egunean aplikazioak lantzen ditugu, azalduz, gizarte parte-hartzea izan daitekeela bitarteko bat gatazka gainditzeko eta politikan dauden programak beste era batera kudeatzeko.

## Ikastaro hauen ostenen?

Lehen fasea ikastaro hauek dira. Hemendik aste batzuetara hiru publikazio eskainiko dira ikastarotetan ematen diren edukiekin; hau eskatzen duten guztiei banatuko zaie; hirugarren fasea irailean izango da: kasu honetan, dekalogo bat banatuko da gizarte parte-hartzearen inguruan egunkari guztietan. Datorren urteari begira jarraipen bat egitea da helburua, momentuz hiru fase hauek aurreikusita dauden arren. Hau lehen



N. GARZIA

## » DATUAK

- **Ikastaroa.** *Ikasi parte hartzen* gizarte parte-hartzearen iguruan.
- **Noiz eta non.** Maiatzaren 13, 14 eta 15ean, Tolosako Kultur Etxean.
- **Izen-ematea.** Baketik-ekin harremanetan jarrita: 943 25 10 05, partehartu@baketik.org ala [www.baketik.org](http://www.baketik.org). Doan da.

pausoa izatea nahi dugu, eta aurrerantzean oinarri bat izatea, pixkanaka pixkanaka etorkizunean parte-hartzearen inguruan Gipuzkoa osoan sare bat egiteko.

## Nori zuzenduta dago?

Erabat irekia da, edonork har dezake parte eta doan da.

## Gizarte parte-hartzearen arloan non gaude beste herrialdeekin konparatuz?

Euskal Herria nahiko garatuta dago beste lurraldeekin konparatzen badugu. Esaterako Agenda 21aren inguruan gauza ugari egin dira, eta herriz herri eta udalez udal esperientzia interesgarriak

ari dira jorratzen. Tolosan, esaterako Tolosa 2015 ekimenarekin jorratzen ari dira gizarte parte-hartzearen esperientzia. Horretaz gain, Euskal Herrian badago gizarte aldetik indar asoziatibo handi bat, beste lekuetan ez dagoena, eta horrek ere laguntzen du gizarte parte-hartzearen fenomenoak Euskal Herrian indartsuagoa izaten.

## Nork eskainiko du ikastaroa?

Gai hauetan murgilduta ibili diren unibertsitateko irakasle batzuk emango dituzte, eta baita gizarte parte-hartzearen esperientzia zabala duten pertsonak ere.

## Parte hartzeko nahi eta beharra dutela herritarrek ikusten duzue?

Joera parte hartzeko da. Herritarrek, oro har, nahi dute parte hartzeko ereduak errazak eta argiak izatea, ez burokratikoak eta nahasiak. Alde horretatik erakundeek ahalegin handia egin behar dute politika guztietan ikuspuntu hau sartzeko eta aldi berean, ikuspuntu hau garatzeko bitarteko errazak eta argiak eskaintzeko gizarteari.

## Akatsa egon da argindarraren fakturretan

**AZPIEGITURAK** › Tolargik adierazi duenez, «Gupost S.A. ren akats informatiko batengatik» Tolargiren fakturak ez dira behar ziren bezala bidali. Faktura egokiak maiatzaren 12tik aurrera bidaliko dituzte.

## 'Artea Oinez 08' erakusketa Aranburun

**KULTURA** › *Artea Oinez 08* erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian Nafarroa Oinez 08k antolatuta. Gaur izango da erakusketa ikusteko azken eguna.

## Laskorain abesbatza Norvegiari buruzko Kultur Jardunaldietan

## ERREDAKZIOA

Laskorain Abesbatzak bi kontzertu eskainiko ditu gaur eta astelehenean Donostian, Iehena Santa Maria basilikan eta bigarrena EHUko aulategian, biak 19:00etan. *Udaberria* izeneko kontzertu hauek Donosti Ereski abesbatza antolatu dituen Norvegiari buruzko II. Kultur Jardunaldien barruan kokatzen dira eta Laskorain Abesbatzarekin batera

Norvegiako Abildso Bygdekor, Donosti Ereski eta Eskifaia abesbatza eta Et Incarnatus orkestrak ere parte hartuko dute. Laskorain Abesbatzarekin batera, beste tolosar batzuk ere izango dira

protagonista Norvegiari eskainitako II. Kultur Jardunaldi haueetan. Miguel Zerberio tolosarra Donosti Ereski abesbatza eta Et Incarnatus orkestrako zuzendaria da eta bi taldeetan tolosar batzuk ere badira tartean. Gainera Francisco

Tuduri idazle tolosarrak eskianen historiari buruzko hitzaldia eskainiko du hilaren 28an Kutxarean aretoan 20:00etan eta aurkezpena Antxon Bandres mediku eta biologo tolosarrak egingo du. Josu Iztueta abenturazale tolosarrak ere antolaketan parte hartu du.

• Bertan hezitako txerrikume errean espezializatua  
• Asteburuko degustazio menua: 30€

Iriarte jatetxea

Tel.: 943 683 078  
Jose Mari Goikoetxea, 34 • BERROBI  
[www.iriartejatetxea.com](http://www.iriartejatetxea.com) • [info@iriartejatetxea.com](mailto:info@iriartejatetxea.com)

argazki lehiaketa

h

Maiatzaren 18an XIV Orduetako ibilaldia

Ibilbidean zehar ateratzen dituzten argazkiak bidali HITZAra eta hilaren 23ko alean argitaratuko ditugu.

Argazki onena saritu egingo dugu!

HITZA argazki lehiaketa

bidali zure argazkia!

Argazkiak tolosaldean@tolosaldeko hitza.info-ra bidali

## III. Bertso Paper Lehiaketan parte hartzeko epea zabalik

**Alegia** » Zazpi Astoren Gainean bertsozaleen taldeak ekainaren 6ra arte zabaldu du bertso sorta entregatzeko epea.

### ERREDAKZIOA

Alegian bertsozaleen taldeak osatu zuten duela urte gutxi eta dagoeneko bi urtez bertso paper lehiaketa antolatatu dute: orain lekua hirugarrenari egin diote eta beti bezala, Zazpi Astoren Gainean bertsozaleen taldea da antolatzaile. Laguntzen, berriz, San Juan herri eskola, Aralar institutua eta Alegiko Udala izan dira.

Alegiko III. Bertso Paper Lehiaketako oinarriak zehaztu dituzte eta hauek dira, hain zuzen, aurtengoak: parte-hartzaileak, adinaren arabera, bi taldetan banatuko dira. A taldean 16 urte baino gutxiago dutenak, eta B taldean 16 urte edo gehiago dituztenak. A taldean (gaztetxoenean) bi azpitalde egin-

go dira saridunak aukeratzeko garaian.

B taldekoek, edo 16 urtetik gorakoek gutxienez bost eta gehienez hamar bertso idatz beharko dituzte. Bertsoak gai eta doinu librean jarriko dira, baina ezinbestekoa izango da doinuaren izena argi adieraztea. Baldintza horietan, parte-hartzaile bakoitzak nahiadina bertso-sorta aurkeztu ditzake.

A taldekoen baldintzak (DBH artekoena) aurrerago zehaztuko dituzte, eskolakoekin hitz egin behar baitute adosteko.

### Ekainaren 6a baino lehen

Lanak aurkezteko epea zabalik dago, eta azken eguna zehaztu dute: ekainak 6, ostirala. Iaz bezala, aurkezteko garaian bi gutun itxi entregatu beharko ditu bertsolariak. Batean, bertso lana sartuko da eta bestean egilearen izena, helbidea, telefono zenbakia eta beharrezko beste xehetasunak jarri. Egileak izenordea beharko du eta hau, bi gutunetan agertu beharko da idatzita.

Bertso sorta Alegiako Kultur eta Kirol Etxean entregatuz jasoko dute, edo bestela, helbide elektronikoko honetara bidalita: [zazpiastorengainean@gmail.com](mailto:zazpiastorengainean@gmail.com).

### Sariak bertso afarian

Maila bakoitzean lehen biak izango dira sarituak. Dena dela, epai-mahaia bertso sortaren batek beste sari bereziren bat merezi badu, banatu egingo du ere.

Sariak oparietan banatuko dituzte, 150 euro bitartean. Sari banaketa, berriz, B taldekoena, behintzat, bertso afari baten bitartez egingo dute, ekainaren bukarraldia.

A taldekoen sari banaketa oraindik zehaztu gabe dago, baina laster emango dute ezagutzera.

### Ostiralean Eskolartekoa

Datorren ostiralean, hilaren 16an, bertsoei helduz Alegian Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolarien Txapelketa jokatu da. Bertan, gure hainbat bertsolari gaztetxo ariko dira. Finala, Iruran izango da.



Iazko A mailako txikiaren mailako bertsozale batzuk. Irudian, San Juan eskolan, bertsoak sortzen. N. URIBIZU

## Eskualdeko hiru trontzalari aritu dira Gipuzkoako Txapelketan

**Herri kirolak** » Roteta alkizarrak 2. egin zuten Reزابalekin. Garmendia baliarraindarrak eta Iraola ikaztegiarrak, berriz, 3.

### ERREDAKZIOA

Joan den egunean Jokin Garmendia eta Unai Iraola trontzalariak Gipuzkoako lehen mailako txapelketan aritu ziren. Lau bikote batu-

ziren eta hirugarren postua lortu zuten, Reزابalen eta Roteta alkizarraren atzetik: hauen lana ere txalotzekoa izan zela adierazi zuten adituek. Aurtengo irabazleak, espero zen bezala, Esnaola anaiak izan dira, legorretarrak.

Jokin Garmendia baliarraindarrak da eta Unai Iraola, berriz, Ikaztegiarra. Joan den urtean, bigarren mailan aritu ziren eta lehenengo mailara igotzeko postu bat lortu zuten.

Esnaola anaiak faboritoek 7:42 minutu behar izan zituzten eta Reزابal-Rotetak, berriz, 8:09. Garmendiak eta Iraolak, hirugarren eginda, 9:36. Hirugarren eta laugarren postuetan izan zen emoziorik handiena.

Kanaerdiko pago enborrei 18 epai egitea zuten lana, 12 etzandako enborrean, sei zutikakoan. Berrez bost bikote ziren aritzekoak, baina lesioetatik ezin izan zuten lehiatu Egañak eta Iduetak.

## Seniorren mailako lehen partidak, gaur

h

**Pilota** » Herriarteko Txapelketan gaur arratsaldean Berastegik eta Asteasuk jokatu dute, bakoitzak bere herrian.

### ERREDAKZIOA

Gaur Beotibarren senior mailako pilotarien Hitz Txapelketako lehen partidak jokatu dituzte. 10:00etan hasita Beitia-Galarraga eta Urmeneta-Aranalde ariko dira.

Ondoren, NARBARTE-AJURIA eta ANDREU-IRURETA izango dira.

Asteartean Bidanien 19:00etan Asuabarrena eta Goitia, Perez eta Loidi, Taberna eta Mujika eta Barberena eta Zabala izango dira, kadeteen mailan.

### Herriartekoak gaur

Gaur 17:00etan Berastegin Baxararen aurkako Herriarteko Txapelketako norgehiagokak jokatu dituzte. Asteasun 18:00etan hasiko dira Ataunen kontra.

## Laburrak

### Paella jaterako txartelak dagoeneko salgai daude

**ALBIZTUR** » Albizturko Kultur Aste-ari datorren ostiralean helduko diote. Paella jatea antolatu dute hilaren 24rako eta txartelak hilaren 19ra arte egongo dira salgai udal-erretxean, Arkaitz elkartearen eta Herriko Etxea jatetxearen, bost euroren truke. Bertan, postrea, kafea eta kopa ere izango dira. 14:00etan izango da bazkari hau, plazan. Ondoren, musika izango da.

### Frontenis Txapelketarako izen-ematea zabalik

**BALIARRAIN** » Baliarraingo I. Frontenis Txapelketan izena emateko epea zabalik dago, hilaren 15era arte. Banaka jokatzeko da eta izena Aralar Kirolak eman daiteke. Hilaren 31n hasiko da, asteburuan.

### Loatzo musika eskolan izena emateko epeak

**GIZARTEA** » Loatzon izena emateko epeak zehaztu dituzte. 10:00etatik 12:00etara egin beharko dira. Adunako Udaletxean, Alegiko Kultur Etxean eta Irurako Kultur Gunean hilaren 12tik 14ra bitarte. Villabonako Musika etxean eta Zizurkilgo Kultur Etxean hilaren 12tik 16ra bitartean. Ibarako musika eskolan, berriz, 13an eta 14an. Anoetako ikastolan, 15ean eta 16an.

### Idoia Sanchez ipuinak kontatzen ariko da

**ALEGIA** » Datorren ostegunean Alegiko Kultur eta Kirol Etxean Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa izango da entzungai. Galtzaundi euskara taldeak antolatua da ekitaldia eta 17:00etan hasiko da.



'121 amu KOSTALDEA EZAGUTZEKO' liburua

**Maiatzak 10, larunbata**  
**kartilla eta 1. kupoia**  
**berria**rekin



**L Laburrak****Gaur eta bihar Kultur Asteko azken ekitaldiak**

**BERROBI** ● XVIII. Kultur Astea bihar amaituko da. Gaur 09:00etan bi orduko mendi marxa egingo dute. 16:00etan Mus Txapelketa egongo da Solastokian. 18:30ean Toka txapelketa eta 22:00etan Angel Magoak emanaldia eskainiko du Solastokian. Bihar, azken egunean, 12:00etan Txakoli dastaketa egingo dute Udaletxe aurrean eta 18:00etan *Mendeko Musika* emanaldia egingo da.

**Izaskun auzoko jaiak gaur 18:00etan hasiko dira**

**IBARRA** ● Izaskun auzoko jaiak gaur 18:00etan hasiko dira, herri kirol erakustaldiarekin. Bertan harri-jasotzaileak, trontzalariak eta aizkolariak ikusteko aukera egongo da. 21:00etan Mañukorta eta Anjel Mari Peñagarikanorekin bertso-afaria egongo da Izaskun Jatetxean. Bihar 12:00etan hasiko dira ekitaldiak, herri kirolekin. 14:30ean herri bazkaria egingo dute Egaña eta Arzallus bertsolariekin. 18:00etan berriz asto-lasterketa egongo da. Pintxo eta sagardo dastaketaren ondoren, trikitilariak egongo dira.

**Osasunaren inguruko hitzaldia hilaren 13an**

**GAZTELU** ● Uli Mankomunitateak antolatuta eta Kutxako ikasgelak sustatutako osasunari buruzko hitzaldia egongo da maiatzaren 13an Gaztelun. Hitzaldia herriko elkarrean egongo da, 17:30ean, eta bertan *Alergien Mundua* izango da hizpide. Hitzaldi sorta baten lehena izango da datorren astearteko.

**Berto afarirako izena emateko aukera**

**GAZTELU** ● Berto afari bat antolatuta dute San Isidro eguna ospatzeko. Maiatzaren 17an Hamaika Bertute taldeko bi partaide egongo dira Muxarra elkartean, Mantxi eta Ander Lizarralde. Saioa Galtzaundi euskara taldearen eta Udaleren artean antolatuta dute. Izena eman nahi duenak maiatzaren 15a izango du azken eguna. Izena emateko bi telefono jarri dituzte: 943 67 58 97/943 68 22 28.

**Ezkurraz gozatzeko jarrizteko aukera gaur**

**ERREMONTEA** ● Erakustaldiaren lekuko izan, gozatu eta txalo egin. Altuna II.ak aukera hori izan zuen herenegun Galarreta pilotalekuan. Ezkurra pilotari handiak 31 tanto eta 2 huts-egite egin zituen partida guztian zehar. Partida amaieran Ezkurra-Badiolak 40, Altuna II-Lizasko 26. Gaur berriz, frontoi berrean Ezkurra eta Zeberio II.aren arteko lehia ikusteko aukera egongo da 16:00etan hasiko den jaialdian. Patxi Zeberio Iriarte izango du atzeko kuadroetan eta Ezkurra Agirrezabala. Jaialdiko bigarren partida izango da.

**Maitasuna eta afektibitatea aztergai**

**LEABURU-TXARAMA** ● Uli Mankomunitateak antolatuta eta Kutxako ikasgelak sustatutako hitzaldia egongo da maiatzaren 14ean, asteazkenean, Txaramako Osasun kultur gunean. *Maitasuna eta afektibitatea adinekoren artean* izango da hitzaldiaren izenburua eta 16:30ean hasiko da.

# Gelditour hilaren 13an iritsiko da eskualdera

**Gizartea** » AHT Gelditu! Elkarlanak ekitaldi ugari antolatuta ditu Tolosa eta Zizurkilen egun horretarako.

**ERREDAKZIOA**

AHT Gelditu! elkarlanaren eskuetik pasa den hilaren 4tik 31ra Gelditour izeneko ekimena burutzen ari da Euskal Herrian zehar. AHTren proiektuak «kaltetuko» lituzkeen eskualdeak zeharkatzen ari da Kortesen (Nafarroa) hasi eta Donostian (Gipuzkoa) amaituko den Gelditourra. Hilaren 13an, asteartean, Tolosaldeara iritsiko da.

**Hiru helburu**

Gelditour ekimenak hiru helburu ditu antolatzaileen esanetan: «Baretik informazio-ekimen erraldoia izango da, hau da, proiektuaren

nahiz eragingo lituzkeen kalteen informazioa lau haizetara zabalduko du. Bestetik, AHTren aurkako mobilizazio erraldoia izango da, inposaketaren aurkako aldarria eta azkenik, herri eztabaidaren alde indarrak biltzeko tresna izango da, kolektibo nahiz norbanakoek AHTren aurkako dinamikan beren ekarpena egin dezaten».

Azken helburu hau behin eta berriaz azpimarratu nahi izan dute antolatzaileek: «Gelditour ekimenak jendarte sektore zabalean Abiadura Handiko Trenarekiko aurkakotasuna erakutsi, inposaketa errefuxatu eta proiektuak bere oinarrian duen garraio, gizarte antolaketa eta gizarte ereduaren inguruan herri eztabaida habia dadila esijitzeko du».

**Tolosaldean ekitaldi ugari**

Hilaren 13an iritsiko da Gelditourra gure eskualdera. Bertan ekital-

di ugari antolatuta dituzte AHT Gelditu! Elkarlana taldekoek.

Lehenik eta behin, Tolosan manifestazioa egingo dute 12:30etik aurrera Triangulotik irtenda. Ondoren Zizurkilen egingo dira erakusketa, hitzaldi eta elkarretaratzeak. Elkarlanatik parte hartzeko deia luzatu dute.

**» EKITALDIAK****Maiatzak 13, asteartea**

- **12:30.** Gelditour kamioia Tolosako Triangulora iritsiko da eta manifestazioa egingo da.
- **17:00.** Zizurkilgo Joxe Arregi plazan eskualdeko erakusketa bat egingo da.
- **19:00.** Zizurkilgo Joxe Arregi plazan hitzaldia: *AHT eta behar dituen harrobia*.
- **20:00.** Elkarretaratzea Zizurkilgo errotondan.



Maiatzaren 13an, asteartean, Tolosa eta Zizurkilen manifestazioa eta elkarretaratzea egingo dira, beste ak beste. E E

## berria

**Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak** hautatzeko probarako deialdia

PROBAREN EGUNAK ETA TOKIAK

**GIPUZKOAN**

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkea  
**Ordua:** arratsaldeko lauretan.

**BIZKAIAN**

**Eguna:** maiatzaren 23a  
**Tokia:** Leioako campuseko BERRITUTAKO ERAIKINA (Reformado) 1. gelan  
**Ordua:** eguerdiko ordu batean

**ARABAN**

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** BERRIAKO Gasteizko egoitza, Bizenta Mogel 6, behea.  
**Ordua:** goizeko bederatik eta erdietan.

**NAFARROAN**

**Eguna:** maiatzaren 20a  
**Tokia:** BERRIAREN Iruñeko egoitza, Iruñeko monasterioa 45, eskuineko eskailera, 13. ezberra.  
**Ordua:** goizeko 10:00etan.

**Probata curriculumak ekarri behar da**

## Ibilaldi neurtuaren balorazioa

**Berastegi** » Basurde kirol elkarteak antolatutako ibilaldi aurrera ateratu zuten zuten guztiei.

**A. IMAZ**

Basurde kirol elkarteak kideek iragan igandean antolatuta zuten Berastegiko XVI. Ibilbide Neurtuaren emaitzak plazaratu dituzte.

Basurdeko kideen esanetan, 300 mendizale bildu ziren ibilaldian eta hauetatik 22 bakarrik ez ziren iritsi helmugara. Horretaz gain, e-mail bidez izena emateko aukera jarri izana arrakastatsua izan zela aipatu dute.

Partaideak Euskal Herriko txoko askotatik hurbildu zirela ere aipatu dute balorazioan: Nafarroatik 13; Arabatik 2; Bizkaiatik 2 eta gainontzeko guztiak gipuzkoarrak izan dira.



Antolatzaileak gustura agertu dira aurtengo Ibilaldi Neurtuarekin. HITZA

**Eskerrak laguntzaileei**

Basurde kirol elkarteak lehenik partaideei eskerrak eman nahi izan dizkie. Ondoren ibilaldi neurtuaren burutu zuten lan egin zuten guztiak eskertu dituzte: «babesleak eskuzabaltasunari, Berastegiko Udalarri, Berastegiko Babes Zibileko taldeari eta antolatzaile lanetan

aritu eta murgildu diren beste hainbat herritarrei eskerrak ematen dizkiegu, eurek gabe ez baitzen posible izango Ibilaldi Neurtua aurrera ateratzea».

Ondo egindako gauzakin gustura, Basurde kirol elkarteak Ek XVII. mendi marxa prestatzen hasteko parada dute.

# Ume eta gazteentzako udako tailerrak antolatu dituzte

**Aisia** » Sormen eta gorputz tailerrak eta haur txokoa antolatu dituzte eta izena emateko 012ra deitu behar da; epea hilaren 25ean amaituko da.

## NAIARA GARZIA

Leitzako Udalak, Euskara Zerbitzuak eta Leitzaldeko Gizarte Zerbitzu eta Mankomunitateak *Udan ez gelditu etxean* lelopean umeentzako sormen eta gorputz tailerrak eta haur txokoa antolatu dituzte.

Sormen eta gorputz tailerrak 5 eta 12 urte bitarteko umei zuzenduta daude eta ekintza ezberdinak antolatu dituzte. Sormenari dagokionez arkitektura, birziklapena, argia-koloreak-argazkiak eta ipuin-kontutan izeneko tailerrak antolatu dituzte, eta gorputzari dagokionez, berriz, olinpiadak, natura-ura, musika eta dantza eta zirkoa.

Haur txokoa 3 eta 7 urte bitarteko umeentzako izanen da eta hiru txanda eginen dituzte ekainaren 30etik aurrera.

## Sormen tailerrak

Arkitektura ekainaren 30etik uztailearen 4ra emanen dute eta tailer honek arkitekturaren munduan murgiltzea izanen du helburu. Materiak ezberdinak erabiliz, eraikuntzen diseinu eta maketekin jolas egingen dute.

Birziklapen tailerra uztailearen 7tik 11ra emanen dute eta bertan

objektu, zabor eta jostailuen birziklapen sortzailea egingen dute.

Argia, kolorea eta argazkiak izeneko uztailearen 14tik 18ra izanen da, eta honek ere sormena lantzea du helburu, argia eta itzala, koloreak eta argazkien jolasen bitartez.

Azkenik, ipuin kontutan izeneko uztailearen 21etik 25era emanen dute. Haurrek aukeraturako liburu eta ipuinen pertsonaien bidez txotxongiloak egiteko teknika ezberdinak ikusi eta ikasiko dituzte. Txotxongiloekin antzezlan bat prestatzeko aukera ere izanen dute.

## Gorputz tailerrak

Gorputz tailerren barruan ere lau tailer emanen dituzte. Olinpiadak izenekoan olinpiaden historian zehar egon diren joko eta kirolak ezagutu eta probatzeko aukera izanen dute eta ekainaren 30etik uztailearen 4ra emanen dute.

Natura eta ura izenekoan urak gaur egun duen garrantzia aztertuko dute eta bidenabarrean Leitzako ur, iturri eta errekek ezagutu dituzte, ur jokoak eginez (hau uztailearen 7tik 11ra izanen da).

Musika eta dantza hirugarrenastea emanen dute (uztailearen 14a eta 18a bitarte), eta bertan



Leitzan urtean zehar umeek ludotekaz gozatzeko aukera izaten dute, baita Areson ere. N. GARZIA

munduko erritmo eta musikaz baliatuz gorputz espresioak eta dantza gozatzeko aukera izanen dute haur eta gazteek. Azkenik, zirkoari buruzko tailerra uztailearen 21ean hasi eta 25ean amaituko da.

Beraz, astero bi tailer eskainiko dituzte, hau da, arkitektura eta olinpiadak aste berean izanen dira, birziklapena eta natura eta ura bigarren, argazkiak eta musika eta dantza hirugarrenean eta ipuin eta zirkoarena, laugarrenegoa.

## Prezioak eta ordutegiak

Tailer bakoitzak bi ordutegi izanen ditu: 10:00etatik 13:00era (3 ordu), pertsona bakoitzeko 25 euro eta bi pertsonen izena emanez gero, 45 euro edo 09:00etatik 13:00era (4 ordu). Kasu honetan pertsona bakoitzeko 32 euro ordaindu beharko dira eta bi pertsonengatik 58 euro.

**Mahala**  
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN  
**PROBIGURRAK**




**Jogurta**

Mahala baserria - 20491 LEABURU  
Tel.-Faxa: 943 673 499  
Tel. Mug.: 689 805 633

## Haur txokoa

Haur txokoa 3 eta 7 urte bitarteko umei zuzenduta dago eta 2 asteko 3 txanda izanen dira. Lehenegoa, ekainaren 30etik uztailearen 11ra, bigarrena uztailearen 14tik 25era eta hirugarrena uztailearen 28tik abuztuaren 8ra.

Antolatzaileek haur txokoaren oinarriko helburuak azaldu dituzte: «haurren gizarteratzea, elkarren arteko harremanen bitartez jolasa, kirola, ekintza artistikoa eta ingurunea ezagutzera, haurrak ikas eta jolas dezaten bidenabarrean esperientzia onak bizitzu, elkarlana eta partehartzea bultzatu, kultura, kirola, natura eta jolas jarduerak burutu, gure ideiak adierazten eta besteak errespetatzen ikasi eta elkarkidetzara sus-

pertu, arau, ordutegi, material eta instalazioekin begirunea landuz».

Taldeak txikiak izanen dira eta gaiaren arabera begirale espezializatuak izanen dituzte. Antolatzailuek azaldu dutenez, «tailer bakoitzean izena ematen duen ume kopuruaren arabera tailerren egitura onarritako helburuak azaldu dituzte, adierazten eta besteak errespetatzen ikasi eta elkarkidetzara sus-

## Aurrematrícula

Aurrematrícula egiteko 012 telefono deitu behar da maiatzaren 23a baino lehen.

**ARAMBURU**

Salgai (Alkiza). Etxe handia lursailarekin. 4.000m<sup>2</sup>, gutzit eraberritua.  
Salgai (Tolosa).  
Etxebizitza. Soldadu kalean, sartzeko moduan. (231.000€ / 38.500.000pzta)  
Salgai (Tolosa).  
Etxebizitza garajearekin, Trinkete auzoan.  
Salgai (Tolosa). Etxebizitza. Nagusia kalean. 1. Igogailuarekin sartzeko moduan eta bestea eraberrituzko eta igogailurik gabe. (193.000€ / 32.000.000pzta negoziagarriak)  
Salgai (Tolosa).  
Etxebizitza, Martin Jose Iraola kalean.  
Salgai (Ibarra).  
Etxebizitza, San Ignazio auzoan, sartzeko moduan. (211.000€ / 35.000.000pzta)  
Salgai (Tolosa). Izaskun auzoan. (234.400€ / 39.000.000pzta)  
Salgai (Ibarra).  
Lokala. Euskal Herria kalean.  
Salgai. Garajeak. San Frantzisko eta Amarozen (Tolosa) eta Idoigean (Ibarra).  
Salgai edo alokatzeko (Lasarte).  
Lokala. tximiniarekin, erdiguanean.  
Alokatzeko (Tolosa). Etxebizitza, lurre auzoan, sartzeko moduan.  
Alokatzeko (Tolosa).  
Garajeak. San Frantzisko. Araba etorbidean eta Babilier Zaldibian.  
Alokatzeko (Ibarra).  
Pablioi industriala. Leaburuko bidean.  
**943 65 17 13 / 677 46 09 16**

## » EDUKIAK

■ **Adinak.** Sormen eta gorputz tailerrak 5-12 urte bitartekoentzat dira. Haur txokoa, 3-7 urte bitartekoentzat.

■ **Izena emateko epea.** Maiatzaren 25ean amaitzen da, 012ra deitu behar dute interesatuta daudenek.

## Sormen tailerrak

■ **Arkitektura.** Material ezberdinak erabiliz eraikuntzen diseinu eta maketekin jolastuko dute.

■ **Birziklapena.** Objektu eta zaborrekin birziklatuz sormena landu.

■ **Argia-kolorea-Argazkiak.** Argia-itzala, koloreak eta argazkien jolasean bitartez sormena landuko dute.

■ **Ipuin kontutan.** Haurrek aukeraturako liburu eta ipuinen pertsonaien bidez txotxongiloak egiteko teknika ezberdinak ikasiko dituzte. Txotxongilo hauekin antzezlan bat prestatzeko aukera izanen dute.

## Gorputz tailerrak

■ **Olinpiadak.** Olinpiaden historian zehar egon diren joko eta kirolak ezagutu eta probatzeko aukera izanen dute haurrek.

■ **Natura eta ura.** Urak gaur egun duen garrantzia ikusteko aukera edukiko dute Leitzako iturri eta errekek ezagutzuz. Ur jokoak egingen dituzte.

■ **Musika eta dantza.** Munduko erritmo eta musikaz baliatuz gorputz espresioa landuko dute.

■ **Zirkoa.** Zirkoetan ohikoan diren hainbat jarduera eta ekintza ikasiko dituzte.

## Haur txokoa

■ **Lehen txanda.** Bi astetako txandak izanen dira. Ekainaren 30etik uztailearen 11ra.

■ **Bigarren txanda.** Uztailearen 14tik 25era.

■ **Hirugarren txanda.** Uztailearen 28tik abuztuaren 8ra.



17°  
12°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	17°
HOTZENA	12°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Alkiza.** San Isidro eguneko afaria izango da 15ean Ostatu jatetxean. Udalak familia bakoitzetik bi pertsonari ordainduko die afaria, herriaren errotatuta badaude. Beste norbaitek afarira joan nahiko balu 18 euro ordaindu beharko ditu. Izen-ematea, Ostatuan bertan.  
■ **Baliarrain.** Banakako I. Frontenis Txapelketa izango da maiatzaren 31tik ekainaren 15era, asteburuetan. Izen-ematea, Tolosako Aralar Kirolak, Beasaingo Urrutia Kirolak eta Legorretako Olosa tabernan 5 eurotan, hilaren 15a arte.  
■ **Tolosa.** Tolosaldea Sahararekin elkarrekin Fronte Polisarioren 35. urteurreneko ekitaldi instituzionala antolatuko du Emeterio Arrese plazan 12:00etan, Frenteko ordezkari bat eta udal agintariekin haima batean. Gero, lunch-a eta tea.  
■ **Tolosaldea.** Kontseiluaren 10. urtemuga: haurrentzako jaialdia Anoetako frontoian 16:00etan; haurrentzako 1,2,3 Inaxito bertso antzerkia Irurako San Migel Plazan 18:00etan; Deabruak Teilatueta taldearen kontzertua Anoetako Gaztetxean 22:30ean eta Ken Zazpi taldearen kontzertua 22:00etan Zizurkilgo Intxaurren pilotalekuan.  
■ **Tolosa.** Hilaren 17an ospatuko den Txapin festa bazkari herrikoirako txartelak salgai daude 10 eurotan Raku, Orbela, Meskal nahiz Denak tabernetan.  
■ **Tolosa.** Burdeoseko urteroko azokara igandean joateko autobusa antolatuko dute. Izen-ematea, 627 419364 telefono zenbakian.  
■ **Tolosa.** Ziklotoreen azterketa egingo dute Ferialekuan hilaren 26an eta 27. Txanda eskatu behar da Udaltzainguan (943-675858).  
■ **Tolosa.** Eduardo Mokoroa udal musika eskolak aurrematrikula egiteko aukera zabaldu du egunero 10:00etatik 13:00etara.

■ **Villabona.** Villabona-Anoeta-Irura jubilatuen ibilaldia larunbatean, 9:00etan Biltokitik abiatuta, Sacem zubia, Anoetako plaza, Iruira, Laskibar, zubia eta amaiera Biltokin hamaiketakoarekin

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Itaie tabernan Noelia Crujeiras berrobittarren lanak oliotan, alabastro masillan eta marmore hautsean.

### Jaiak

■ **Izaskun.** Izaskungo jaiak: 18:00etan herri kirolak (Goenatxo

eta Aimar harri-jasotzaileak, Unai Otaño eta Lasa aizkolariak eta Esnaola anaiak trontzan) eta 21:00etan bertso afaria izango da Mañukorta eta Anjel Mari Peña-garrikanorekin.

### Antzerkia

■ **Tolosa.** *Magia teilatueta* haur antzerkia Leidor aretoan 17:00etan.

### Kultur asteak

■ **Berrobi.** XXIII. Kultur Astea: 09:00etan Berrobi-Leaburu-Belauntza-Berrobi mendi ibilaldia

gazte eta helduentzat; 16:00etan Solastokian mus txapelketa; 18:30ean toka txapelketa eta 22:00etan Angel magoaren magia saioa Solastokian.

### Zinema

■ **Tolosa.** *Cometas en el cielo* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur 19:30ean eta bihar 22:00etan.  
■ **Tolosa.** *10.000* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta astelehenean 20:30ean (ikuslearen eguna).

### Irteerak

■ **Anoeta.** Alkartasuna jubilatuta biltokiak irteera antolatuko du Portugalera, Getxoko portua eta Guggenheim museoa bisitatzeko ekainaren 11n. Bazkaria Lur Gatika jatetxean izango da. Izen-ematea, biltokian 27 eurotan (bazkide ez direnek, 30 euro).  
■ **Belauntza.** Kultur Etxeak Errioxako bodegak ezagutzeko irteera antolatuko du maiatzaren 10ean. Bodega batean gosaldia, Laguardian goiza pasa eta La Puebla de Labarcan 3 bodega ikusi ondoren 4. batean bazkaria. Izen-ematea, Kultur Etxean egin daiteke 28 euroren truke.  
■ **Tolosa.** Oargi mendi elkartek Alpeetara eta Atlasera mendi irteera antolatuko du nahi dituzten abuztuaren. Beste bisita batzuk egiteko aukera ere izango da. Informazioa eta izen-ematea, 637 830380 telefonon.

## A Agurrak



### Zorionak!

**Juana Otegi eta Joxe Galarraga (Amasa-Villabona).**  
Gaur urrezko ezteiak. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,  
ekarri  
argazkia  
bi egun  
lehenago.

agurrak

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik.

**zeu**  
ileapaindegia  
ileapaindegia berritua

har ezazu zure txanda  
**943 671 427**

santa klara 8. Tolosa

berriak 5 urte

Zatoz  
gurekin ospatzera!

Eskualdez eskualdeko ekitaldiak

- BERRIAK 5 urte. Bidea
- Hitzaldia. Aurrera begirako erronkak
- Mokadua

### TOLOSALDEKO EKITALDIA

Maiatzak 14, asteazkena, 20:00etan  
Tolosako Kurtur etxean

berria  
luzatu bostekoa

